

ERREGIÑA

Pedro-bizer, gizon zelebrea inor izatekotan, gazteei beti «ulea-artzen» ibiltan. Alan da gurtiz ere, beti, gazte pilo bat eukiten eban bere inguruan, bere zelebreekiekaz barre egiteko prest.

Bein, gabonetako oporretan, Madrilen lege-gizon ikasten egozan ikasle bigaz aurkitu zan Atxuriko taberna baten. Ezagutu ez ebazan egiten baina Madrileri buruz berbetan egozala konturatu zanean, urreratu eta esan eutsien:

—Madrildarrak ala?

—Ez ba, izatez Atxurikoak, Madrilen ikasketak egiten.

—A! Orduen zuok... «nozoz» Erreginea be ikusiko zenduen, ezta? Ikasleak, alkar kinu egin eta esan eutsien:

—Erregina? Bai, egun guztietan.

—Kontxo!, egun guztietan? Orduen zuok, aren morroiak zarie?

—Kia! ez, jazoten dana zera da, gure etxea Erreginaren jauregiaren aurrez-aurre dago eta Erreginak, egunero-egunero, leiora urtetan dau eta antxe ikusten dogu.

—Polite da? Mutilek zuek daukazue suertea!! Nik neuk be, il baino leenago, gure neunke Madrileko Erreginea ikusi.

—Ez zaitez arduratu gizontxo, ori laster konponduko dogu. Urlien egunean Madrilerara itzuliko gara eta zu, geugaz etorriko zara, geure etxera.

Zertan esanik be ez dago, gure Pedro Bizerrek artu eban poza zelakoa izan zan. Bien bitartean ikasle biak planak egiten hasi ziran;

—izan ere esandako guztia guzurra zan.

—Etzok ardure —esan eutsan batak besteari. Antonio Gutierrez´en aita jauk Erreginaren zaldi zain bai... ta berak lagunduko jeuskuk.

—Pazil esan dok, eta Erregina leioan zelan ikusiko jok ba? ez jauk inoiz leiora urtetan eta!

—Ez ei orrenbeste arduratu! Ik itzi neure konture.

Amaitu ziran oporrak eta an joiazan irurak Madrilerantz —ikasle biak eta Pedro Bizer—. Pedro Bizer «Dotor Pinto» bera baino be dotoreago joian, oarran» da guzti.

Eldu ziran Madrilerara eta ikasle biurri biak, zer uste dozue egin ebela? Ba, sartu eben gauak luzeak zirala eta... alan euki eben iru egunean, erdi lotan, ez jaten ez edaten emon barik; irugarren egunean balkoira atera eta aurrez aurre egoan palazioko leioa erakutsiz esan eutsien:

—Zuur egon adi! 5 minuto barru agertuko da Erreginaren aurpegia leio aretan.

Pedro Bizer begiak ere mogitu barik egoan, geldik, taketan lez. Laster ikusi eban, ikusi be, an agertu zana. Zer zan? Ba Antonio Gutierrezen eperdia

—ikasleek ori egiteko esan eutsien eta—.

Ikasleak, Pedro Bizerren atzean egozan, zuur, a ikusterakoan zer esaten edo zer egiten eban ikusteko eta bere konture barre egiteko, baie... txarto urten eutsien.

Pedro Bizerrek, tenpleu-tenpleu ikusi eta gero, esan eban:

—Oño!! Arpegi ederra benetan!! Baie... Erreginea ez da euskaldunen errazakoa. Ikasleak, arrituta, esan eutsien:

—Ta ori zelan dakizu ba?

—Ba erreza dok, begiratu egiozue ondo eta ikusiko dozue guk, euskaldunok,

agoa belarritik belarrira zabaltzen dogula eta Erreginarena goitik beera zabaltzen dala.

Aor ba zelan, barriro ere konturatu barik, gure Pedro Bizerrek aazak emon eutsiezan

*Irakurlea: Bibiñe Pujana - Andereñoa
(Zeanuri)*